

HAUR-HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

EUSKAL DANTZAK HAUR HEZKUNTZAKO HEZKUNTZA- KURRIKULUMEAN EZARTZEKO AUKERA

Egilea: Olatz Agirremota Vivar

Zuzendaria: Jurgi Kintana Goiriena

Leioan, 2018(e)ko maiatzaren 16(e)(a)n

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Esparru teoriko kontzeptuala: aurrekariak eta egungo joera	3
1.1 Aurrekariak	3
1.2 Kurrikulum ofiziala	5
1.3 Gure helburuak	5
2. Metodologia eta lanaren garapena	6
2.1 Elkarrizketa Patxi Labordari	7
2.2 Unitate didaktikoa diseinatu	9
2.3 Unitate didaktikoa haur hezkuntzako irakasleekin kontrastatu	14
3. Emaitzak	16
4. Ondorioak	20
5. Erreferentzia bibliografikoak	23

ERANSKINAK

1.eranskina: Patxi Labordari elkarrizketa	25
2.eranskina: Unitate didaktikoa	26
3.eranskina: Irakasleei elkarrizketa	30
4.eranskina: Irakasleei egindako elkarrizketen erantzunak	31
5.eranskina: Adimen anitzen taula	40

EUSKAL DANTZAK HAUR HEZKUNTZAKO HEZKUNTZA-KURRIKULUMEAN EZARTZEKO AUKERAK

Olatz Agirremota Vivar

UPV/EHU

Lan honen helburua Euskal Dantzak EAE-ko hezkuntza sisteman ezartzeko dauden aukerak aztertzea da, zehatzago esanda, Haur Hezkuntzan. Artikulu honetan, unitate didaktiko bat diseinatzean zentratuko gara eta bere bideragarritasuna kontrastatuko dugu eremu geografiko ezberdinetan lanean dabiltzan irakasleekin, horrela, hau faktore erabakigarri bat den ondorioztatzeko. Ikerketa hau folklorista ezagun baten elkarrizketan eta Bizkaiko eskolatan lan egiten duten 9 irakasleri egindako inkestetan oinarritzen da. Ebaluazio tresna hauen azterketak informazio ibilbide ezberdinak zehaztea ahalbidetu digu gaitasunen, edukien eta metodologiaren artean.

Euskal Dantza, Haur Hezkuntza, hezkuntza kurrikuluma, unitate didaktiko, aukerak.

El objetivo de este trabajo es analizar las opciones de integrar los bailes típicos vascos en el sistema educativo de la CAV, exactamente en la etapa de educación infantil. En este artículo nos centraremos en diseñar una unidad didáctica y en analizar su viabilidad contrastando esta con profesoras que trabajan en diferentes zonas geográficas para, así, concluir si este es un factor determinante en la integración del folclore en la escuela. Esta investigación se basa en una entrevista con un conocido folclorista y encuestas recogidas a 9 profesoras que trabajan en escuelas de Vizcaya. El estudio de estos instrumentos de evaluación nos ha permitido establecer diferentes cruces de información entre las capacidades, los contenidos y la metodología.

Bailes vascos, Educación Infantil, currículo, unidad didáctica, opciones

The objective of this essay is to analyse the chances of integrating Basque typical dances into the education system of the Basque Autonomous Community, exactly into pre-school education. In this article we will focus on designing a teaching unit and on analysing its viability contrasting it with teachers that work in different geographic areas in order to conclude if this is a decisive factor in the integration of the folklore in the school. This investigation is based on a interview with a named folklorist and a survey made to 9 teachers who work in schools of Biscay. The study of these assessment's tools has allowed us to introduce different courses of information between the abilities, the contents and the methodology.

Basque dances, pre-school education, syllabus, teaching unit, chance

Sarrera

Lan honen bidez, gure kulturaren zati garrantzitsua diren Euskal Dantzek, Haur Hezkuntzako eskolan duten presentzia nagusitzea onuragarria izango litzatekeen aztertuko da.

Horretarako, lana bi ataletan banatu da: hasteko, ikerketa txiki bat egin da aipaturako gaia justifikatuz, hau da, Euskal Dantzak Haur Hezkuntzan izan ditzakeen onurak aztertuz. Bigarrenik, Haur Hezkuntzan lantzeko baliagarria izango litzatekeen materialaren proposamena egiten da eta gaur egun lanean dabiltzan irakasle batzuekin kontrastatu da materiala galdetegien bidez. Irakasle hauek, zentro ezberdin bitan egiten dute lan: batzuk, Bilboko Elizbarrutiko Ikastola batean eta beste batzuk herri euskaldun txiki bateko herri-eskola batean. Era honetara, eremu geografikoak Euskal Dantzen integrazioa baldintzatu dezakeen ondorioztatzeko.

Dantza, zalantzarik gabe, Euskal Herriaren bereizgarrietako bat da. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka, hauen transmisio era aldatuz joan da. Duela urte batzuk, familian ikasten ziren arren, gaur egun, Dantza Taldeetara edo eskolaz kanpoko ekintzetara jo behar dute askok. Euskal Dantza eskola adinean dauden haur guztiengana zabaltzeko erarik onena, Eskolako Hezkuntza proiektuan sartzeari litzatekela sinistuz sortu da lan hau.

1. Esparru teoriko-kontzeptuala: aurrekariak eta egungo joera

1.1. Aurrekariak

Duela 20 urte inguru, “Folklore kurrikulum-a” sortzeko ahaleginetan aritu ziren hainbat aditu eta, hauek lantzeko, proposamen didaktikoak egin zituzten (Legorburu 2001) Lehen Hezkuntzako 5. ta 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduta, Euskal Dantzen bidez, eskolako beste hainbat eduki landu daitezkeela frogatuz. Proiektu honek, folklorista askoren oniritzia jaso zuen arren, gaur egun, Eusko Jaurlaritzak du gordeta, ez da aurrera eraman, hala ere, idatzitakoaren nondik norakoak

irakurri daitezke. Beste alde batetik, Sierna eta Zengotita-Bengoak (1995) Euskal Dantzak Lehen hezkuntzarako tresna bezala oso baliagarriak direla justifikatzen dute.

Euskal Dantzak hezkuntzan sartzek hainbat helburu orokor ditu Gerardo Sierna eta Zengotita-Bengoaren ustetan (1995) ustetan:

- Herri nortasuna sendotzea
- Euskal Herriko ezagupen sozio-geografiko-kultural orokor bat lortzea
- Neskek eta mutilek trebetasunezko eta mugimenduzko ekintza fisikoetan elkar baldintza berdinetan parte hartzea
- Ikasleak bere inguru hurbilean praktikan jar ditzaken zenbait dantza kalean egiteko behar duen ziurtasunez ikastea
- Gure kultura zaintzeko eta transmititzeko bakoitzak daukagun ardura eta protagonismoa ulertzea

Lehenengo eta behin, Euskal Dantzak zertarako diren onuragarriak pentsatzean, psikomotrizitaterako eta talde lanean aritzeko direla pentsa dezakegu. Izan ere, Dantzaren bidez, koordinazioa, erritmoa... landu daitezke besteak beste eta, gainera, taldeko partaide sentitzeko eta gainerakoak errespetatzeko eta onartzeko baliagarria izan daiteke. Hala ere, Legorburuk (2001), lehen aipaturako proiektuaren sortzaileetako batek, oso argi uzten du dantzarekin batera, gelan, eduki asko landu daitezkeela: dantza bakoitza nongoa den azter daiteke Euskal Herriko geografia lantzeko; dantzatzeko beharrezkoa den materiala edo musika instrumentu tradizional bat sortu daiteke...

Beraz, argi geratzen da, Euskal Dantzak Hezkuntza proiektuan ezartzeko onuragarriak izan daitezkeela. Material eta teoria guzti hauek dagoeneko eginda dauden arren, denak dira Lehen- edo Derrigorrezko-Hezkuntzan aurrera eramateko proposamenak.

Gainera, Sierna eta Zengotita-Bengoaren (1995) liburuan hurrengoa irakur daiteke: *“ikasleen %77ak Euskal Dantzak ikasi nahi izango lituzke eta horietatik %84ak eskolan irakatsi beharko liratekeela uste du, hauetatik %73ari klase egutegiaren barnean egitea gustatuko litzaioke”* (390.or). Ikerketa hori Lehen Hezkuntzako haurrekin egin zen eta emaitza horietaz gain, Euskal Dantzak dakizkiten neska eta mutil kopuruaren ezberdintasuna oso nabaria izan zela ere aipatzen da.

Esan bezala, orain arte sortutako unitate didaktiko edo proposamen guztiak Lehen Hezkuntza edo maila altuagotara zuzenduta daude, Haur Hezkuntza alde batera utziz. Horregatik, hau nire espezialitatea dela kontuan hartuta eta etapa honetan ere dantzak onurak ekar ditzakela sinetsiz, adin tarte horretara zuzendutako ikerketa eta proposamen batzuk egitean izango da berritzailea lan hau. Egingo dudak ekarpena, beraz, Haur Hezkuntzan ere Euskal Dantzak ikas daitezkeela frogatzen datza.

1.2. Kurrikulum ofiziala

3-6 urte bitarteko haurren garapena dela eta, etapa honetan, dantzaren eta musikaren lehen printzipioak ikasi beharko dituzte eta hau, aurrerago ikastekoaren oinarri izango da. 237/2015 Haur hezkuntzako dekretuak, abenduaren 22koak, ez du zehazki Euskal Dantzei buruz hitzik egiten, hala ere, zeharka, kultura eta tradizioa lantzearen garrantzia aipatzen du.

Haur Hezkuntzako kurrikulum-ak “nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera” eremuaren barruan, hurrengo helburuak zehazten ditu:

- Ingurune fisiko eta soziala behatu eta aztertzea eta hura ezagutzeko interesa adieraztea, haren partaide izateko sena lantzeko eta ingurune horretan nolabaiteko segurtasunez eta autonomiaz jarduteko.
- Ingurune fisikoa arakatzeko eta esperimendatzea eta haren elementuetako batzuen ezaugarriak ezagutzeko, elementu horien gainean eragin eta haiek eraldatzeko gaitasuna lantzeko, eta interes eta errespetuzko jarrerak lantzea.
- Haurren bizi-ingurunean egiten diren bertako eta kanpoko festak, tradizioak eta ohiturak ezagutzeko eta haietan parte hartzea, haiekin gozatu eta nortasun-zeinu diren aldetik balioesteko.

1.3. Gure helburuak

Lan honek haurren garapena bultzatuko duen materiala diseinatzea izango du helburuetako bat, izan ere, dantza egituratuak ikasi baino lehen, badaude haur txikien ere ikasi ditzaketen gaiak ere, “Dantza jolasak” esaterako.

- Honakoak dira galdera eragileak:

- Gai dira Haur Hezkuntzako haurrak Euskal Dantzak ikasteko?
- Zertarako dira onuragarriak?
- Edukiak lantzeko baliagarriak izango lirateke?
- Merezi du Euskal Dantzak Hezkuntzan ezartzea?
- Eraginik izango luke lehen urte hauetan dantzan ikasteak jai herrikoietan parte hartzean?

2. Metodologia eta lanaren garapena

Lan hau aurrera eramateko, ikerketa txiki bat (2.1), proposamen bat (2.2) eta kontraste lan bat egin ditut (2.3).

Ikerketa atalean (2.1), gai honetan aditua den Patxi Laborda elkarrizketatu dut bere esperientziari buruz, Euskal Dantzen egoerari buruz eta hezkuntzari buruzko galderak eginez eta dantza hezkuntzan barneratzeko proposamen txiki bat egitea eskatuz.

Patxi Laborda Iruñan jaio zen 1967. urtean eta dantzara zuzendutako ibilbide luzea egin du bizitza osoan zehar. Dantza maisu, koreografo eta txuntxuneroa da. Ikuskizun ezberdinen gidoilari eta zuzendaria da, baita dantzen berreskuratze edo birsortze prozesuan aditua. Ikerlaria ere badela esan dezakegu, izan ere, neguko folkloerari, euskal dantzari, neguko solstizioari eta inauteriari buruzko hainbat lan idatzi ditu. Gaur egun, Bilboko musika eskolako dantza maisu bezala aritzen da eta AIKO Taldeko kide.

Azken hau, Euskal Dantza tradizionala pasioz bizi duten musikari eta dantza irakasle batzuek osatutako taldea da. Euskal Dantza eta tradizioa elkar-banatzen eta zabaltzen egiten du lan Euskal Herri osotik zehar: testu eta dantza zaharrak interpretatuz, ikerketak eginez, dantza eginez, irakatsiz, grabaketak egite ...

Elkarrizketan, 13 galdera egin nizkion hiru multzotan banatuta: euskal dantza eta umeak; euskal dantza eta hezkuntza; dantzaren eragina (galdetegi osoa irakurtzeko ikus 1. eranskina).

Lanaren bigarren atalari dagokionez (2.2), gaiari buruzko informazio guztia batu eta gero, Haur Hezkuntzan Euskal Dantzak lantzeko unitate didaktiko bat diseinatu dut. Haur

hezkuntzako gela batean beharrezkoak diren gaitasunak eta zailtasuna kontuan izanik, dantza bat zehaztu dut eta hori ikasteko asmotan, eduki pedagogiko batzuekin lotura egin. Hau da, Dantza ikasteko landu daitezkeen edukien proposamena egin dut.

Ondoren, kontraste lana egin da (2.3) Bizkaiko zenbait ikastetxetako andereñoei unitate didaktikoa erakutsiz eta galdetegi bat emanez, irakasleak gaur egungo hezkuntza errealitatea ondoen ezagutzen dutenak direlakoan, diseinatutako unitatea aurrera eramateko bideragarria den edo ez zehazteko asmotan.

Eremuaren arabera erantzuna ezberdina izan zitekelakoan, hiri bateko eta Dantza tradizio sendoagoa duen herri txiki bateko irakasle batzuei ere erakustea erabaki dut. Horrela, eremu ezberdinetan lan egiten duten irakasleen ikuspegiak kontrastatu ahal izateko. Aipatzekoa da, herri txiki horretako eskolak, anonimoa izatea eskatu didala, beraz, herri txiki euskaldun bat bezala adieraziko dut.

2.1. Elkarrizketa Patxi Labordari

Patxi Laborda dantza maisu, koreografo eta txuntxuneroarekin harremanetan jarri eta hitzordu bat finkatu genuen 2018ko martxoak 3, larunbata, arratsaldeko 20.00tan. 20 minutuko elkarrizketa bat egin nion (ikus 1.eranskina). Elkarrizketa era jariakor batean eman zen eta, guztia erregistratu nuen grabaketa bidez. Elkarrizketan, aipatzekoak diren hainbat gako-gai agertu ziren.

Esan bezala, elkarrizketa hiru multzotan banatu nuen. Lehenengo multzoari, *Euskal Dantzak eta umeak* deitu nion. Atal hau, elkarrizketari sarrera emateko baliagarria izan zen, izan ere, Euskal Dantzen definizio bat emateko eskatu nion lehenengo eta bere esperientziari buruz galdetu gero. Haur Hezkuntzako umeak dantza egituratu bat ikasteko gai diren ere galdetu nion.

Patxi Labordaren hitzetan, “Euskal Dantzak euskaldunok egiten ditugun dantzak dira, tradizioarekin lotura zuzena duten arren, gaur egun ere tradizioa egiten ari garela kontuan hartzen dutenak, hau da, tradizioa oinarri duten arren, eboluzionatuz doazen horiek”.

Bigarren atala, *Euskal Dantzak eta Hezkuntza* deitu nuen eta hiruetatik, atalik garatu edo konplexuena izan zen. Izenburuak dioen bezala, galdera guztiak Euskal Dantzak Hezkuntzan ezartzearen aukerei eta hori egiteko erari buruzkoak izan ziren (eremu-

kurrikularrean edo ez-kurrikularrean ezarri daitezkeen eta nola egin litekeen hori), Euskal Dantzak Hezkuntzan ezartzekotan, zertan izango litzatekeen onuragarria ere galdetu nion zati honetan.

Hirugarren atalean, *Dantzaren eragina* deiturikoan, dantzatzen duten haurren garapenari buruz galdetu nion. Baita, haurtzaroan dantza ikasteak Euskal Herriko herrietan antolatzen diren jaietako parte hartzean eraginik izango lukeen edo ez.

Bere ustetan, Euskal Dantzak Haur Hezkuntzan ezartzea, erritmoaren pertzepzioa hobetzeko, taldeko lanean aritzeko, ikasle bakoitzak bere tokia topatzeko (ostinato bat taldean markatu behar denean adibidez, bakoitzak bere txanda itxaron behar du edo isiluneak errespetatzen ikasi behar du. Beraz, bere lekua non dagoen ikasi ahalko du), autonomia lantzeko, lateralitatea hobetzeko, psikomotrizitaterako, pentsamendu abstrakturako etab.-erako izan daitezke onuragarriak.

Beste alde batetik, musika eta dantza gai bakar bat bezala ulertu beharko genituela aldarrikatu zuen P.Labordak. Horrela, musikak kurrikulumak zehazten dituen edukiak lantzeko balio duen moduan eta onuragarria den moduan, dantzak ere, balio bera izango du. Hau da, musika eta dantza bat direla ulertzen badugu, musika bezala, dantza ere onuragarria izango da eta haurren eragina izango du, azken batean, dantza, “lurrean egiten den erritmo bat da, gorpuzkera berezi bat ematen diguna”.

Honi lotuta, musikak hezkuntzan duen erabilgarritasunari buruz Euskal Herriko Unibertsitateko *musika, plastika eta gorputz adierazpenaren didaktika* saileko irakaslea den Ana Urrutiak hurrengo dio: “Nahiz eta ume batzuk oraindik ez dakiten ia hitzik egiten, musika erabiliz, tresnak erabiliz, mugimendua erabiliz edo ahotsa haiek dakiten moduan erabiliz, barruko mundua adierazi ahal dute” (Morquecho.F, 2004).

Patxi Labordarekin izandako elkarrizketarekin jarraituz, aipatzekoa den baieztapen deigarri bat egin zidan: “Euskal Dantzak ez dira helburua izan behar, baliabidea baizik”. Hau da, dantza eskolan baliabide bezala erabili behar dugula aldarrikatu zuen eta ez azken xede edo helburu bezala. Koreografia bat ikastea baino garrantzitsuagoa litzateke musika eta erritmoa interpretatzen ikasiz edukiak lantzea. Honen adibidetzat, Labordak, matematika erritmo baten konpasak zenbatuz landu zitezkeela azaldu zidan.

Elkarrizketarekin amaitzeko, hausnarketa bultzatzeko galdera bat egin nion, *Zergatik Euskal Dantzak eta ez, Taekwondo adibidez?*. Bere erantzuna oso adierazgarria izan zen: “Euskal Herrian gaudenez eta Euskal Kurrikuluma erabiltzen dugunez, Euskal Dantzak”.

2.2. Unitate didaktikoa diseinatu

Elkarrizketan jasotako informazioa kontuan hartuta eta aurretik lortutako informazioa ahaztu gabe, Gerardo Sierna eta Amaia Zengotita-Bengoa-k (1995) eta Legorburuk (2001) Lehen Hezkuntzara zuzendutako unitate didaktiko bat diseinatzeko ahaleginetan aritu zirela jakinda, Haur Hezkuntzako eskola orduetan Euskal Dantzak ezartzeko unitate didaktiko bat diseinatu dut. Lan honetarako, A.Atxa irakasleak 2017ko uztailearen 17an aurrera eramandako EPEan parte hartzeko prestatutako unitate didaktiko baten eredu erabili dut. Unitate didaktiko hau eskola biren arteko harremana sustatzeko jarduerak batzuei buruzkoa zen etaosatzen zuten atalak (testuingurua, prozesua, xedea, helburuak eta adierazleak, edukiak eta jarduerak) nire unitate didaktikoan erabili ditut, beraz, aipatzekoa da, oso lagungarria izan dela eredu bat izatea, geroago gaia aldatu dudana arren, unitate didaktiko on batean ze atal agertu behar diren jakiteko. Heziberri 2020 eta 237/2015 dekretuak ere erabili ditut. Azken bi hauek kontsultatzea eguneratutako unitate didaktiko bat diseinatzeko ezinbestekoa izan da.

Heziberri 2020 Hezkuntza-, Hizkuntza Politika- eta Kultura-Sailak Euskal Herriko hezkuntza-sistema hobetzeko egindako plana da eta 2020rako ezarrita egon behar diren aldaketak proposatzen ditu: “Aro digitaleko ikaskuntzak eta irakaskuntzak problema eta proiektu errealek aurkezten dituzte, eta ikasleak laneko planak antolatu eta beharrezko lanak egin behar ditu, ados jarri eta haiei behar bezala erantzuteko”. Hau da, plan honen arabera, eskoletan lantzen diren proiektuak errealek izan behar dira, umeen jakinminetatik sortuak. Beraz, hasteko, diseinatu dudana unitate didaktikoak edozein gelatan sortu daitekeen galdera izango du abiapuntu: Ba al dakigu zer diren Euskal Dantzak zer diren?

Legorburuk (2001) gelan Euskal Dantza unitate didaktikoen bidez lantzeko proposamena egin zuen era zehatz bateko materiala sortuz:

- Irakaslearen koadernoak: +/- 100 orrialdeko liburua
- Ikaslearen lan-koadernoak: +/- 50 orrialde dituen liburuxka

- Bideo zinta: +/- 30 minutu, hiru zatitan banatuta:
 1. Aurkezpena
 2. Aukeratutako dantza era bizian.
 3. Estudioan filmaturiko urratsak, era didaktikoan eskainiak.
- CD bat.

Edukiei dagokionez, Legorburu-k (2001) gai hau bestelako gaietan txertatuta lantzea proposatzen du: musikan erritmoa edo tresnen azterketa; geografia aukeratutako dantza ematen den inguruko geografiaren ezaugarriak landuz; historia, dantzaren ibilbidea aztertuz; hizkuntza, inguruko euskalkiak, hiztegia, egitura... landuz; matematika, grafikoak, estatistikak, eta bestelako ariketak, dantzaren inguruko zenbakiez; plastika, tresnaren bat landuz.

Legorburu-k (2001) proposatutakoa oinarritzat hartuz, haur hezkuntzara zuzendutako ekarpen hau aurrera eramateko, gelan txoko bat prestatzea komenigarria iruditu zait, **dantza txokoa** izendatu dudana, izan ere, nabaria da, gaur egun, adin tarte honetako gela askotan metodologia hau erabiliz lan egiten dela. Gainera, edukiei dagokionez, Legorburuk (2001) aurretiaz proposatutakoen zailtasuna ikusirik, haur hezkuntzan ezarri ahal izateko moldaketa egin dut, matematikan adibidez, 237/2015 Haur hezkuntzako dekretuak, abenduaren 22koak, “Inguruneko elementuen forma lauak eta hiru dimentsiokoak identifikatzea. Oinarrizko gorputz geometriko batzuk esploratzea” zereginetako bat dela dioenez, Legorburuk (2001) estatistika bezalako gaiak lantzea proposatzen duen arren, nik gai hauen moldaketa egin dut dantzaren bidez geometria landu ahal izateko.

Nik prestatu dudan unitate didaktikoak, helburu nagusi bi izango ditu. Alde batetik, mugimendua eta gorputzaren kontrol-ohiturak lantzea; norberaren gorputza ezagutzea eta honek ematen dituen aukerak zein diren erreparatzea.

Helburu bat betetzen dela jakiteko, adierazle batzuk zehaztu behar ditugu, hau da, behatu beharrekoa zehaztu beharko dugu. Azaldutako lehen helburu honetan, Euskal Dantzak oinarritzat hartuz, ikasleak euren gorputzak ematen dizkien aukerak ezagutzen hasi diren aztertu beharko da eta honetarako egiten diren dinamiken bidez Euskal Kultura ere ezagutzen hasten diren.

Ingurune fisiko, sozial eta naturala (tradizioa) modu aktiboan aztertu eta esploratzea izango da bigarren helburua. Hau da, norberaren kultura-nortasuneko zenbait ezaugarri ezagutzea. Kasu honetan, lorpen-adierazlea, kurrikulumak zehazten duen eremu bakoitzean, gaiari lotutako ariketak eginez, inguruan berezkoak diren ekitaldi kulturalak identifikatzen diren izango da.

“Heziberri 2020” martxan jarri denetik, unitate-didaktiko orok hiru multzotan banatutako edukiak izan behar ditu. Kurrikulum-edukia, ikasten eta irakaslen denak osatzen duen elementu multzoari esaten zaio eta aipatu bezala hiru multzotan daude banatuta: adierazpenekoak (jakintza teorikoak dira; jakintzari buruzko datuak, gertaerak, kontzeptuak eta printzipioak), jarrerazkoak (ikasitako joerak, jarrerak eta ohiturak dira) eta prozedurazkoak (adierazpeneko eta jarrerazko edukiak lortu ahal izateko estrategiak dira).

Beraz, unitate didaktiko honetan, adierazpeneko edukiak inguruan berezkoak diren adierazpen kulturalak eta Euskal herriko geografia izango lirake. Euskal Dantzak ere, koreografiak, eduki hauen barruan sartu ahalko genituzke. Jarrerazko edukiei dagokionez, ahozko komunikazioa eta azalpenak era antolatuan emateko estrategiak izango lirake. Prozedurazko edukiak aldiz, talde lanerako errespetua eta motibazioa.

Unitate didaktiko hau 10-12 saio bitartean burutuko da eta 8 ariketa ezberdin egingo dira. Iraupena dela eta, inauterietan lantzeko ezin hobea dela deritzot. Gaiari sarrera emateko, **hasierako jarduera** bi egingo dira. Lehenengoa gaiari buruzko aurre-ezagutzak zehazteko baliagarria izango da. Gaiarekin lotutako irudiak erakutsiko zaizkie ikasleei, euskal dantzariak, musika tradizionalaren zatiak, etab. adibidez. Horretarako, plastifikatutako irudiak, musika ekipoa eta aurre ezagutzak neurtzeko baliagarria izan daitekeen edozein jarduera egiteko beharrezko materiala beharko dira. Jarduera hau gelan egingo da, denbora mugarik gabe eta ikerketa metodologia erabiliz. Amaieran ondorioak aterako dira eta Euskal Kulturaren bereizgarriak zeintzuk diren identifikatu. Jarduera hau eta gero, haurrak, Euskal Tradizioaren (musikaren, dantzaren...) ezaugarri batzuk ezagutu edo gogoratu beharko ditu.

Bigarren jarduera Patxi Labordari egindako elkarrizketan azaldutako dinamika batean oinarrituta dago, izan ere, gaiari sarrera emateko oso baliagarria iruditu zitzaidan. Haurrek proposatzen dituzten jardueren bidez (txaloak, keinuak...) Euskal musika ezberdinen erritmoa jarraitzeko ariketak egingo dira. Jarduera hau ere gelan burutuko da, hasiera

batean, korroan eserita eta haurrei bururatzeko zaizkien jardueren arabera lekuz aldatuz joan ahalko dira. Haurren arreta mantentzeko, 20 minutu inguruko saio bi egingo dira zeintzutan sormenezko jarrera bat bultzatzea oso garrantzitsua izango den. Musikak erritmo bat duela konturatzeko eta taldean aritzen ikasteko izango da baliagarria ariketa hau eta, gutxi gora behera, emandako eredu jarraitzeko gai den eta ideia berriak proposatzen dituen ebaluatuko da.

Ondoren, **jarraipenerako 4 jarduera** egingo dira, bakoitza, arlo batean oinarrituta. Matematikari dagokionez, proposatutako jarduera, Patxi Labordak aipatutako adibide baten moldaketa da, aurretik aipatu bezala, geometria lantzea helburutzat duena. Talde txikiak egingo dira eta irudi geometrikoak landuko dira musikaren erritmoa jarraituz leku aldaketak eginez (“lerro zuzen batean gaude baina musikaren konpasa aldatzen denean, bakoitzak hiru pausu emanaz, forma borobilean jarriko gara”). Leku zabala beharko denez, psikomotrizitate gelan egingo da jarduera hau edo, musika jartzeko aukera egonez gero, patioan ere egin daiteke. Sortutako irudi geometrikoen forma zein den jakitea eta izendatzeko gai izatea ebaluatuko dira emaitza bera baino gehiago.

Geografia lantzeko, gelako dantza txokoa erabiliko dugu. Lan talde txikietan, ikasleek aurretik ekarritako informazioa erabiliz, Euskal Herriko inguru geografiko bakoitzean Dantza ezberdinak egiten direla ikertuko da Legorburuk (2001) proposatzen duen antzera. Amaieran, talde bakoitzak lortutakoa komentatuko da gela guztiarekin batera. Jarduera hau egiteko, Euskal Herriko mapa bat, etxetik ekarritako informazioa eta hori eskatzeko gutuna eta ordenagailu bat beharko dira gutxienez. Talde bakoitzak 15 minutu inguruan egingo luke lan. Amaieran, euren burua mapan kokatzeko gai diren eta Euskal Herria 7 probintzia ezberdinetan banatuta dagoela identifikatzeko gai diren ebaluatuko litzateke.

“Zumarragako ezpata-dantza, magia dantza” ipuina hizkuntza lantzeko erabiliko da. Legorburu-k (2001) hizkuntza lantzeko, euskalkiak lantzea proposatzen du, hala ere, gaur egun, haur hezkuntzan euskara ikastea behar handienetako bat da, hori dela eta, nire ustez, hizkuntza bera ikasteko baliagarriak izan daitezkeen baliabideak erabiltzea lehentasun bat izan beharko litzateke. Beraz, ipuin bat erabiltzea egokiena iruditu zait. Ipuin hau, Antioko ama birjinari egiten zaion ezpata-dantzaren azalpen “magikoa” da. Parte hartzea eta interesa hartuko dira kontutan jarduera hau egitean.

Azkenik, plastikari dagokionez, Legorburuk (2001) proposatzen zuen bezala eta inauteriak aprobetxatuz, dantzarako beharrezkoa edo bereizgarria den materiala sortuko

da, honetarako, gelan, esku lanak egiteko beharrezko material anitza beharko dugu. Gelan egingo da, Dantza txokoan, sormena eta lan pertsonala sustatzeko. Kasu honetan, esku lanak egiteko aurretiaz ikasitako teknikak erabili diren ebaluatuko da.

Amaitzeko, **amaierako jarduera** bi egingo dira. Ikasitako guztiarekin, Dantza tutorialak grabatuko dira. Horretarako, batetik, adinera egokitutako Euskal Dantzak ikasiko dituzte hurrek psikomotrizitate gelan 20 minutuko 3 saiotan. Horrela, saio laburrak eginez, haurren interesa eta motibazioa piztuta mantentzea lortu dezakegu, izan ere, oso saio luzeak eginez gero, arreta galtzea oso erraza den ariketa izan daiteke hau. Amaieran grabaketa egingo da egitura zehatz bat jarraituz: hasieran, haur batzuk agertuko dira dantzari buruzko datu interesgarriak eta ezaugarriak azaltzen, baita jatorrizko herria zein den eta non dagoen azalduko dute. Jarraian, dantzaren pausuak azalduko dituzte bakoitzaren bideo labur bat erakutsiz, eta amaitzeko, ikasle guztiek dantza egingo dute. Guzti hau egiteko, ez da denbora mugarik egongo. Grabaketa egin ondoren, erakusketa bat egitea ideia ona izan ahalko litzateke eta, mailaka adibidez, bideoa ikustera joan arbela digitalera, zinema gelara... Gurasoak ere gonbidatzea ideia ona izan ahalko litzateke.

Ikusi bezala, unitate didaktikoa egiteko, iturri ezberdinetako informazioa hartu dut, baita nik sortutako asko proposatu ere. Hori bereizteko, hurrengo taula egitea otu zait, non ekarpen bakoitza norena den azaltzen den:

	PATXI LABORDA	A.ATXA irakaslea	LEGORBURU (2001)	OLATZ AGIRREMOTA
Unitate didaktikoaren eredua		X		
Helburuak eta adierazleak				X
Edukiak				X
Dantza txokoa				X
Hasierako jarduerak	X			X

Matematika	X			
Gerografia			X	
Hizkuntza				X
Plastika			X	
Amaierako jarduerak				X

1.taula: unitate didaktikoko gai bakoitzaren egileak

2.3. Unitate didaktikoa Haur Hezkuntzako irakasleekin kontrastatu

Unitate didaktikoa diseinatu eta gero, momentura arte lortutako informazio guztia kontrastatzeko (elkarrizketatik, aurrekarietatik, etab.-etik lortutakoa kontrastatzeko), 2018ko martxoan, gaur egun eremu geografiko ezberdinetan lanean dabilzan Haur Hezkuntzako 9 irakasleri eman nien unitate didaktikoa paperrean inprimatuta eta, honekin batera, era anonimoz erantzuteko galdetegi labur bat (ikus 3. eranskina). Esan bezala, informazioa kontrastatzea zen helburu, horregatik, aukeratutako irakasleek eremu geografiko, kultural eta sozial oso ezberdinetan lan egiten dute. Kasu honetan, Bilbon (hiri handi bat, aniztasun kultural handiarekin) eta Bizkaiko herri txiki eta euskaldun batean, ia kanpotarrik gabeko eskola batean. Gainera, irakasleen perfila ere guztiz ezberdina izan da.

IRAKASLEA	JAIOTZE HERRIA	ESPERIENTZIA URTEAK	IKASTETXEAREN KOKALEKUA	IKASTETXEAREN NORTASUNA
A irakaslea	Igorre	+/_ 10 urte	Herri txiki euskaldun bat	Herri eskola
B irakaslea	Durango	+/_ 35 urte	Bilbo	Ikastola
D irakaslea	Bilbo (Indautxu)	+/_ 10 urte	Bilbo	Ikastola
E irakaslea	Bilbo (Basurto)	2 urte	Bilbo	Ikastola
F irakaslea	Bilbo (Basurto)	4 urte	Bilbo	Ikastola
G irakaslea	Bilbo (Deustu)	+/_ 20 urte	Bilbo	Ikastola
H irakaslea	Bilbo (Sarriko)	+/- 35 urte	Bilbo	Ikastola
I irakaslea	Iurreta	+/_ 10 urte	Herri txiki euskaldun bat	Herri eskola
J irakaslea	Gatika	+/_ 15 urte	Herri txiki euskaldun bat	Herri eskola

2.taula: elkarrizketatutako irakasleen perfila

Galdetegiak 2018ko martxoak 20 eman nituen eta, irakasle gehienek, aste horretako ostiralerako, martxoak 23rako, erantzunak eman zizkidaten. Esan bezala, 9 irakasle elkarrizketatu nituen, bi eskola ezberdinetan lan egiten dutenak: batzuk, Bilboko itun peko ikastola batean egiten dute lan eta, besteek, Bizkaiko herri txiki eta euskaldun bateko herri eskola publiko batean. Hala ere, irakasle bakoitzaren jatorria ezberdina da, baita, Haur Hezkuntzan lanean daramatzaten urteak ere, hau da, bakoitzak duen lan-esperientzia ere nahiko ezberdina da.

Hain lagin ezberdin hau izatearen arrazoi nagusia, ahalik eta iritzi ezberdinenak jasotzea izan da, izan ere, bakoitzaren errealitatea oso ezberdina da eta horrek, gai honi buruzko iritzia guztiz alda dezakeela deritzot.


Jasotako erantzunetan ikusi daiteke Euskal Dantzak eskolan lantzeari buruzko iritzia guztiz ezberdina dutela irakasleek. Batzuek onuragarria izan daitekeela uste dute, beste batzuek aldiz, ez dela beharrezkoa. Formakuntzari buruzko erantzuna ere oso ezberdina da gainera.

Azken dinamika honekin, ikerketa honek zituen helburu garrantzitsuenak betetzea lortu dut: Euskal Dantzak haurrentzako onuragarriak izan daitezkeen zehaztea; gaur egun ikastoletan/eskoletan lan-orduetan Euskal Dantzak ezartzeko dauden aukerak aztertzea, etab.

3. Emaitzak


Atal honetan, irakasleek betetako galdetegietatik atera daitezkeen emaitzez arduratuko gara. Erantzun guztiak eranskinetan daude banan-banan ikusgai. (ikus 4.eranskina).

Galdetegiei dagokionez, hasteko, hezkuntza sistemak Euskal Kulturari/Folkloreari beharrezko garrantzia ematen dion galderari erantzundakotik, norabide guztietan doazen emaitzak jaso dira. Alde batetik, irakasle gehiengoak, hezkuntza sistemak ez diola beharrezko garrantzirik ematen uste du eta gehiago eman beharko liokela deritzo. Beste alde batetik, 3 irakaslek, hezkuntza sistemak garrantzia ematen dion arren, hau da, garrantzia eman behar zaiola idatzita dagoen arren, ikastetxeen esku dagoela uste dute eta hauek direla garrantzirik ematen ez diotenak. Irakasle bakar batek aldiz, garrantzia ematen zaiola uste du. Beraz, ondorio nagusienetako bat, Euskal Herriko zentroetan, Haur Hezkuntzako etapan, kultura erakustearekiko gabezia nabari bat dagoela da.



Eskola batean Euskal Kultura lantzeko, gai zehatza edozein dela ere, unitate didaktikoen bidez egiteak pena merezi duen galdetzean, irakasle guztiek erantzun dute baietz bik izan ezik. Baiezkoen artean, arrazoiak oso anitzak izan dira. Denek erabiliko lituzkete Kultura transmisiorako, hala ere, batzuek, euskaldunek ahaztu ez dezaten edo euren nortasunaren atal bat dela birgogoratzeko erabiliko lituzke. Besteek, gero eta etorkin gehiago dagoela kontuan hartuta, unitate didaktikoak kultura zabaltzeko erabiliko lituzke. Hau da, bi erantzunak kultura transmisiorako diren arren, helburua desberdina dela esan dezakegu.

Aipatu bezala, irakasle bik ez lituzkete unitate didaktiko zehatzak kultura lantzeko erabiliko. Kultura zeharka landuko luketela azaldu dute: edozein unitate didaktikotan adimen musikala edo kinestesikoa landu daitekeela eta edozein tarte hartu daitekeela euskal abestiak edo dantzak ikasteko argudiatuz. Beraz, irakasle hauek, ez lukete unitate didaktiko zehatz bat egingo Euskal Kultura lantzeko baina zeharka lantzea garrantzitsua dela deritzote.



2.grafikoa. Euskal Kultura lantzeko unitate didaktikoak (ehunekoetan)

Beste alde batetik, diseinatutako unitate didaktikoa eskolan bertan aurrera eramateko bideragarria izango litzatekeen galdetzean, irakasle guztiek jarrera baikorra erakutsi dute, hala ere, 2 irakaslek, eskolaren funtzionamendua oso zehatza dela eta eskolaren lan egiteko eraren arabera moldatu beharko litzatekela uste dute.

Bi irakasle horietako batek, ikastolan, proiektuak diseinatzeko adimen anitzen taulak erabiltzen dituztela adierazi du. Horregatik, nik diseinatutako unitate didaktikoa eskola zehatz batzuetan bakarrik aurrera eraman ahal izatearen beldurrez, moldagarria izan daitekeela frogatzea otu zitzaidan. Beraz, diseinatutako unitate didaktikoaren moldaketa egin dut adimen anitzak kontuan hartzen diren taula batera pasatuz.


Adimen anitzen teoriaren sortzailea Howard Gardner delako esan dezakegu, Harvardeko unibertsitateko irakaslea eta hezkuntzan doktoratua. Orain arte, gizakiok, adimen mota bakarra genuela esaten zen baina teoria honen arabera, 8-9 adimen ditugu. Pertsona guztiok ditugu adimen mota guztiak, hala ere, faktore genetiko eta kulturalen arabera, pertsona bakoitzak adimen bat besteak baino garatuago izango dugu.

Adimenak hurrengoak izan daitezke: intrapertsonala (nork bere burua ulertzeko gaitasuna. Barneko sentimenduak, pentsamenduak... identifikatzeko gaitasuna); interpertsonala (besteak ulertzeko eta elkarreragiteko gaitasuna. Lankidetzan aritzeko trebetasuna); hizkuntzarakoa (hizkuntza modu egokian erabiltzeko gaitasuna. Ideiak eta sentimenduak ahoz edo idatziz komunikatzeko gaitasuna); logiko-matematikoa (operazio matematikoa, problemak, hipotesiak, ondorioak, argudioak... prozesatzeko trebetasuna); ikus-espaziala (irudien bidez pentsatzeko eta ideiak grafikoki azaltzeko trebezia); musikala (musika formak autemateko, bereizteko... gaitasuna. Erritmoak, tonuak edo melodiak antzeman eta erabiltzeko gaitasuna); kinestesikoa (gorputzaren bidez ideiak adierazteko gaitasuna); eta naturistikoa (natura mundua, animaliak, landareak... ulertzeko trebetasuna. Ingurugiroarekiko konpromezua erakusteko gaitasuna).


Gauzak horrela, esan bezala, aurretik diseinatutako unitate didaktikoan azaltzen diren jarduerak adimen anitzetan sailkatu ditut horretarako taula bat erabiliz (ikus 5. eranskina). Helburuak, testuingurua... ez aldatzea erabaki dut baina jarduerak sailkatu ditut. Adimen interpertsonalari dagokionez, elkarlanean aritzeko dinamikak egingo dira, adibidez, dantza ikastea, musika interpretatzea, etab. Gainera, taldean debateak sortzea ere garrantzitsua izango da. Adimen intrapertsonalari dagokionez aldiz, norbanakoari zuzendutako jarduerak egingo dira, euskal dantzen nondik norakoak aztertzea adibidez, hau da, bakarkako jarduerak edo norbanakoari zuzendutakoak. “Zumarragako ezpata-dantza, magia dantza” liburua gelan irakurtzearekin eta grabaketak egiteko azalpenak ematen ikastearekin, hizkuntza-adimena landuko da.

Aurretik planteatutako unitate didaktikoan matematika arloa lantzen denez, adimen logiko-matematikoa lantzeko aukera argiak daude. Musikaren erritmoa jarraituz, sekuentziak jarraituz, irudi geometrikoak egin ditzakete leku-aldaketak eginez. Adimen ikus-espazialari dagokionez, Euskal Dantzari lotutako eskulanak egingo ditugu batetik eta, Dantza tutorialaren grabaketa bestetik. Musikalari dagokionez, dantza bera ikasiko da eta musika jarraitzeko ariketak egingo dira. Adimen kinestesikoan ere, dantza ikasiko da, izan ere, ariketa hau egiteko, musika jarraitu eta gorputza kontrolatu beharko ditugu. Adimen honetan, musika jarraitzeko ariketa psikomotorrak ere egingo dira. Azken adimenari dagokionez, adimen naturalistari hain zuzen ere, Euskal Herriko inguru geografikoa aztertuko dira. Aipatzeko da ere, adimen ikus-espazialean egingo diren eskulanak material birziklatuaz egingo balira, adimen naturalistaren zati ere izango liratekela.

Irakasleei egindako elkarrizketen emaitzekin amaitzeko, gai honen inguruan diseinatutako edozein unitate didaktiko aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da irakasleek gutxienezko formakuntza bat izatea, euskal kulturari eta folkloreak gutxienezko ezagutza izatea beste era batera esanda. Elkarrizketatutako hiru irakasleek, formakuntza dutela adierazi dute, dantza biziago dagoen eremuetan bizi diren horiek hain zuzen ere.



Formakuntzarik jaso ez duten horien artean, bi irakasle aparteko formakuntza jasotzeko prest egongo lirateke, ingelesean dituzten jakintzak sakontzeko izaten dituztenak bezalakoak adibidez eta, beste bik aldiz, ez dute hain garrantzitsua denik uste. Gainerako irakasleek, ez dute formakuntza jasotzeari buruzko iritzirik eman.



Datu hauek aztertuta, ondoriozta dezakegu, Euskal Herriko irakaslegoak kultura eta folkloerari buruzko formakuntza gabezia duela. Patxi Labordak esan zidan bezala, honen arrazoietakoa bat, irakasleek ez dutela formakuntza hau behar izan daiteke, hau da, baliabide hau gabe ere, Dantza gabe, badaude eskoletan dantzarekin lor daitezkeen gaitasunak lortzeko baliabideak, beraz, ez zaio beharrezko garrantzirik ematen.

Hala ere, datuek beraiek erakutsi duten bezala, Euskal Dantzak Haur Hezkuntzan edukiak lantzeko beste edozein baliabide bezain onak izan daitezkeela uste du irakaslegoak.

4. Ondorioak

Argi dago Euskal Herriko kulturak euskaldunon nortasuna zehazten duela. Gure aitite-amamen belaunaldian, kultura transmisioa etxean ematen zen, hala ere, garaiak aldatuz doaz eta gaur egungo Euskal Herriko gizarteko jendearen perfila aldatu egin da: globalizazioa dela eta, beste kultura batzuetatik gero eta hurbilago gaude, beraz, herri nortasuna galduz doa edo, batzuen ustetan, aberastuz. Kontua da, euskal kultura gero eta disolbatuago dagoela. Egoera ikusita, duela urte batzuk etxeetan egiten zena eskoletan egitea, haur batzuentzat euskal kulturarekin hurbiltasuna izateko izango duten aukera bakarra izango da.

Emaitzetatik atera daitekeen informazioa kontuan hartuta, esan dezakegu, Euskal Dantzak Haur Hezkuntzan onuragarriak izan daitezkeela eta eragin baikorra izan dezaketela, beraz, gaur egun dantzaren bidez lor daitekeen garapena lortzeko baliabideak badaudela ukazina den arren, Euskal Hezkuntza sistemak gure nortasuna zehazten duen gai honen alde apustua egin beharko luke.

Lanean zehar aipatu bezala, Patxi Labordarekin izandako elkarrizketatik oso argi ondoriozta genezake Euskal Dantzak “lehen begiradan” ematen duena baino gauza gehiagorako onuragarria izan daitezkeela eta, azken batean, adimen intra- eta interpersonala garatzeko baliabide ezin hobea dela. Izan ere, aditu honek aipatu bezala, Euskal Dantzaren bidez, norbere burua ezagut daiteke, taldeko partaide bihurtu, etab.

Bestalde, Euskal Dantzen bidez kurrikulum-ak zehazten dituen edukiak ere landu daitezkeela frogatu dugu diseinatutako unitate didaktikoaren bidez. Ikasgaiez gain, hau da, matematika edo geografia lantzeaz gain, abstrakzioa bezalako gaitasunak ere landu daitezke eta hau, adibidez, ikasleak beranduago matematikan landu beharreko gaiak lantzeko prestatzeko bidea izan daiteke.

Beraz, eskoletan Euskal Dantzak lantzea onuragarria izan daitezkeela ondoriozta dezakegu. Ez dugu ahaztu behar, gainera, gai akademikoetarako onuragarria izateaz gain, baliabide dibertigarri eta motibagarri bat ere izan daitekeela eta hor egoten dela, askotan, ikasketa esanguratsu baterako gakoa.

Datu baikor hauek ikusita, zein da ba, hezkuntza sisteman Euskal dantzak ezartzeko arazoa?

Jasotako informazioa aztertuta, ezin daiteke arazo zehatz bat dagoenik esan, bai ordea, hainbat arazo txiki. Batetik, ingurune sozialaren arabera, ikasleen perfila ezberdina izango da, beraz, lehentasunak beste batzuk izaten dira, hizkuntza lantzea adibidez. Etorkin asko dauden ikastetxe batean, Haur Hezkuntzan bereziki, ikasleen eskolarizazioa oso ezberdina izan daiteke, horregatik, kasu askotan, gauza oinarritzkoenak lantzen hasi beharko gara. Horregatik, Euskal Dantzak ikastea bigarren leku batean gera daiteke.

237/2015 dekretuak, abenduaren 22-koak, kultura eta tradizioari beharrezko garrantzia ematen diola azertu ondoren, hau aurrera eramatea zentro bakoitzaren esku dagoela ondorioztatu dezakegu, aztertutako zentroetan ikusi bezala, lehentasunak oso ezberdinak izaten baitira kasu askotan.

Bestalde, irakasleen formakuntzan ere gabezia dagoela argi geratu da eta bertan dagoela eskoletan Euskal Dantzak aurrera ez eramatearen arrazoietako bat. Aipatu bezala, irakasleek badituzte beharrezko konpetentziak lantzeko baliabideak, beraz, ez dute gai honen inguruko formakuntza berezien beharrik sentitzen.

Arazo hauek konpontzeko edo behar hauek asebetetzeko, Euskal Dantzak baliabide egokia ere izan daitezkeela sinetsi behar dugu irakasleok, hau da, etorkin asko dauden eskola batean adibidez, hizkuntza bada lehentasuna, zergatik ez erabili euskal musika eta dantza hizkuntza ikasteko? Lan honetan frogatua geratu da dantzaren bidez edozein eduki landu daitekeela.

Gaur egun hezkuntzan Euskal Dantzak ezartzeko aukera errealei dagokienez, lana osatzeko, hezkuntzak gobernuarekin bat egin beharko luke eta Euskal Dantzak eskoletan ezartzeko proiektu bat martxan jarri. Ondoren, emaitza errealak behatzeko analisi bat egin beharko litzateke.

Baliteke, Euskal Dantzak hezkuntzan ezartzearen kontu hau, kanpotik begiratuta, oso utopikoa izatea, baina Patxi Labordak elkarriketan esan zidan esaldi batekin aldatu nahiko nuke ikuspuntu hau: Euskal Hezkuntzan baldin bagaude, zergatik ez Euskal Kultura landu? Hau da, ikastola askok modan jartzen diren ekintzen aldeko apustua egiten dute, onura asko ekar ditzaketela argudiatuz. Beraz, ikerketa hau ikusirik, zergatik ez egin gurea den zerbaiten aldeko apustua? Frogatuta geratu da Euskal Dantzak ere onuragarriak izan daitezkeela modu pedagogiko batean ezartzen baditugu.

Sortu dudan unitate didaktikoari dagokionez, irakasleek emandako erantzunak ikusita eta hausnarketa pertsonal bat eginez, esan dezaket, materiala oso egokia dela, irakasleak berarekin guztiz ados daudela, hala ere, arazoa, ikastetxe bakoitzak era ezberdin batean egiten duela lan da, hau da, unitate didaktiko hori Euskal Herriko ikastetxe askotan martxan jartzeko baliagarria izango litzatekeen arren, irakasleek ere azaldu zidaten bezala, beste ikastetxe askotan duten lan egiteko era ezberdina da, ez dituzte unitate didaktikoak erabiltzen, horregatik, ez litzateke baliagarria izango ikastetxe horietan aurrera eramateko. Aipatzekoa da, kasu horietan, barruko informazioa hartu eta moldatzea bakarrik legokela.

Amaitzeko, lanaren izenburua kontuan hartuta, **Euskal Dantzak Haur Hezkuntzako Hezkuntza Kurrikulumean ezartzeko aukerak** dela birgogoratu, Euskal Dantzek

Euskal Herriko eskoletan onurak ekar ditzakete eta baliabide ona izan daitezke. Beraz, laburbilduz, Kurrikulumean ezartzeko aukerak badaudela ondoriozta daiteke lan hau kontuan izanik.

5. Erreferentzia bibliografikoak

237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, *Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria, 9. zk, 2016ko urtarrilaren 15a, ostirala. 2018ko martxoaren 3an berreskuratua

<https://www.euskadi.eus/y22bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf> -tik

Aiko Taldea. 2018ko apirilaren 28an berreskuratua <http://aikotaldea.eus/> -tik

Etxebarria, P. eta Martinez, R. (2013). *Adimen anitzak*. 2018ko apirilaren 29an berreskuratua <https://www.slideshare.net/pilaretxebarria/adimen-anitzak-web> -tik

Euskal Dantzak Lehen Hezkuntzan, ikasgelatik plazara. (2009-07-01). In *Hik Hasi*. 2017ko azaroaren 12an berreskuratua <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20090701/euskal-dantzak-lehen-hezkuntzan-ikasgelatik-plazara> -tik

Eusko Jaurlaritza, hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila (2010). *Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu kurrikularrak Euskal Autonomia Erkidegoan*. 2018ko martxoaren 3an berreskuratua http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r435473/eu/contenidos/informacion/dif10/eu_5495/adjuntos/dc_educ_inf_e.pdf -tik

Eusko Jaurlaritza, hezkuntza, unibertsitate eta ikerketa saila (2014). *Heziberri 2020. Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*. 2018ko martxoaren 3an berreskuratua <https://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua1254.pdf> -tik

Eusko Jaurlaritzaren Web Zerbitzuak (d.g.). *euskadi.eus*. 2018ko apirilaren 28an berreskuratua <http://www.euskadi.eus/heziberri-2020-plana-faq/web01-a2h2020/eu/> -tik

- Legorburu, M. (2001). Folklorea euskal curriculumaren globalizatzailea. *Jentilbaratz. Cuadrenos de folklore*, 7,7-12. 2017ko azaroak 11n berreskuratua <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/jentil/07/07007012.pdf> -tik berreskuratua.
- Morquecho, F. (2014, uztailak 1). Egunero erabili beharko genuke musika Haur Hezkuntzako gelan. *El Diario Vasco*. <http://www.diariovasco.com/bajo-deba/201407/01/egunero-erabili-beharko-genuke-20140701000915-v.html> -tik berreskuratua.
- Sierna, A. eta Zengotita-Bengoa, A. (1995). Folklorea eskolara Euskal Dantzaren bidez. In Eusko Ikaskuntza (Ed.), *XII congreso de estudios vascos* (387-406.orr). Donostia-San Sebastian: Eusko-Jaurilaritza